

Andoaingo Udalak Otietako tunela ireki du behin-behinean babes-sistema batekin

- Behin-behineko babes-elementu bat diseinatu eta eraiki da, erabiltzaileek tunela segurtasun bermekin zeharkatu ahal izateko.
- Urrian hasiko dira tunela konpontzeko behin betiko lanak.

Duela hilabete inguru, ekainaren 17an, Otietako tunela itxi egin zuten, tunelaren goialdeko gune baten erortzearen ondorioz. Kalte pertsonalik gertatu ez bazen ere, tunelaren benetako egoera eta kalteen norainokoa ezagutzea lehentasunezkoa izan da. Udal teknikariak arduratu dira askatze horren irismena ebaluatzeaz eta hura konpontzeko behar diren lanak baloratzeaz. Horretarako, funtsezkoa izan da gertakariaren geologia eta forma ezagutzea, baita tunelaren egituraren egoera ere.

Gauzak honela, egiaztatu da afekzioa ez dela tunelaren osotasunera zabaltzen, eta gertakariaren ingurunera mugatzen dela soilik. Mari Jose Izagirre Zerbitzuetako zinegotziak jakinarazi duenez, "lehentasuna du konponketa bat egiteak, baina tuneletako euste-lanak ez dira errazak eta denbora asko beharko dute". Horregatik, "Leitzaran bailarara joateko erabilera handieneko udako hilabeteak ez zigortzeko, behin betiko konponketa-lanak urrira atzeratzeko erabakia hartu dela azaldu du.

Izagirrek adierazi duenez, "behin-behineko babes-elementu bat diseinatu eta eraiki behar izan da, euste-funtzioa beteko duena, erabiltzaileei zubia segurtasun-berme hobekin zeharkatzeko aukera emanez". Gailu horri esker, Otietako tunela berriro ireki ahal izango da, urrian behin betiko konponketei heldu arte. "Orduan itxiko da, berriz ere, udalerriko tunelik ibilietako bat".

Instalatutako egiturak eta finkatzeko euskarriek nabarmen murriztu dute tunelaren zabalera erabilgarria, eta pasabide libreko sekzioa murriztu egin da. Hori dela eta, erabiltzaileei eskatzen zaie jarritako seinaleak errespetatu ditzatela, eta gogorarazten zaie oinezkoek lehentasuna dutela bizikleten eta beste ibilgailu batzuen gainetik.

Andoain, 2022ko uztailak 23.